Gobierno de Navarra
Departamento de Relaciones Ciudadanas

Nafarroako Gobernua
Herritarrekiko Harremanetako Departamentua

**EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUAREN ETA DINDAIA FUNDAZIOAREN ARTEKO HITZARMENA, 2022. URTEAN *EUSKARAZ KILIKA* EGITASMOA GARATZEKO.**

**CONVENIO ENTRE EUSKARABIDEA – INSTITUTO NAVARRO DEL EUSKERA Y DINDAIA FUNDAZIOA PARA DESARROLLAR EL PROYECTO *EUSKARAZ KILIKA* DURANTE EL AÑO 2022.**

## A) XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Dindaia Fundazioaren arteko oinarri orokorrak ezartzea, Dindaia Fundazioak Euskaraz Kilika egitasmoa aurrera ateratzeko, eskola adinean daudenei euskarazko jarduerak eskaintzeko.

*Euskaraz Kilika* proiektua Dindaia Fundazioak garatu du, eta Nafarroako eskola adineko haurrei eskainia da. Proiektu honetan uztartzen dira euskarazko Internet bidezko talde elkarrizketak eta aurrez aurreko saioak. Horrela, eremu eta herri desberdinetako haurrekin elkartzeko aukera eskaintzen zaie Nafarroako haurrei.

Hauek dira aisialdian euskara erabiltzeko proposamen honen helburuak:

- Pandemiaren ondorioz sortu den hizkuntza arrakala txikitzen laguntzea.
- Nafarroako haurren artean euskarazko harremanak sortzen laguntzea.
- Nafarroako haurrak euskararen lurraldeetako haurrekin elkartzen laguntzea.
- Haurrei eta gazteei euskaraz gozatzeko aukera eskaintzea.
- Euskarazko aisialdi ez lehiakor eta sortzailea bultzatzea.

## A) OBJETO

El presente convenio entre Euskarabidea- Instituto Navarro del Euskera y Dindaia Fundazioa tiene por objeto establecer las bases generales para el desarrollo del proyecto denominado *Euskaraz Kilika,* para ofrecer actividades en euskera a la población en edad escolar.

*Euskaraz Kilika* es un proyecto, desarrollado por Dindaia Fundazioa dirigido a niños y niñas de Navarra en edad escolar. En este proyecto se integra una propuesta de conversaciones grupales a través de internet y encuentros presenciales en euskera, que permite a niños y niñas de Navarra, interactuar mediante la red con otros niños y niñas de diferentes zonas y localidades.

Los objetivos de esta propuesta para el uso del euskera en el tiempo libre son:

- Contribuir a reducir la brecha lingüística derivada de la pandemia.
- Ayudar a crear relaciones en euskera a niños y niñas de Navarra.
- Contribuir a que niños y niñas de Navarra interactúen con niños y niñas de los territorios donde se habla euskera.
- Ofrecer la posibilidad de que niños y jóvenes disfruten en euskera.
- Impulsar el ocio no competitivo y creativo en euskera.

- Testuinguru ez formalean euskarazko ahozkotasuna lantzea.

- Aisialdian euskararen erabilera sustatzea, hizkuntza ohiturak indartzeko.

Hitzarmen honen bidez, Dindaia Fundazioaren *Euskaraz Kilika* ekimenaren gastu hauek finantzatuko dira: egitura gastuak, koordinazio gastuak, begiraleen langile gastuak, komunikazioa, eta pedagogia eta prestakuntza jarduerak.

**B) ZIOEN AZALPENA**

Bi erakundeek azaltzen dute:

1. Euskararen erabilera sustatzea dutela helburu komuna, eta Dindaia Fundazioak antolatu duen *Euskaraz Kilika* proiektu espezifikoa osoki gauzatu ahal izateko elkarren arteko koordinazioa beharrezkoa dela eskola adinean daudenei euskarazko jarduerak eskaintzeko.

2. Bi aldeek, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak eta Dindaia Fundazioak, ezagutzen eta onesten dutela Nafarroako Foru Komunitatean indarra duen lege esparrua, bi aldeei gaitasuna ematen diena hitzarmena sinatzeko eta hitzarmenaren zeinahi ekimen osagarri garatzeko.

**C) LEGE ESPARRUA**

Hitzarmen hau ondokoan ezarritakoaren arabera arautuko da:

1. 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

- Trabajar la oralidad en euskera en un contexto no formal.

- Fomentar el uso del euskera en el tiempo libre para reforzar los hábitos lingüísticos.

Mediante el presente convenio se financiarán los gastos de estructura, coordinación, personal de monitores, comunicación y actividades pedagógicas y formativas de la iniciativa *Euskaraz Kilika* de Dindaia Fundazioa.

**B) EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

Ambas instituciones acuerdan que:

1. Es objetivo común de ambas instituciones el fomento del uso del euskera y para la realización del proyecto *Euskaraz Kilika* es necesario el trabajo coordinado para su desarrollo integral, para ofrecer actividades de ocio y tiempo libre en euskera.

2. Que ambas partes, Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera y Dindaia Fundazioa, conocen y respetan el marco legal vigente en la Comunidad Foral de Navarra, que habilita a ambas partes para suscribir el presente convenio y desarrollar cualquier iniciativa complementaria vinculada al mismo.

**C) MARCO LEGAL**

El presente Convenio se regirá por todo lo establecido en:

1. Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

2. 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa. Bere 1.2 artikuluan esaten da zein diren foru lege horren ezinbesteko helburuak: herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea, euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz, eta euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraikiz, hori guztia Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.

2. La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera, que establece en su artículo 1.2 los objetivos esenciales de la misma, proteger el derecho de la ciudadanía a conocerlo y usarlo y concretar los medios para hacerlo posible, observar su recuperación y desarrollo, indicando medidas para fomentar su uso y garantizar la enseñanza y el uso del euskera, siguiendo los criterios de voluntariedad, gradualidad y respeto, todo ello de acuerdo a la realidad sociolingüística del euskera en Navarra.

3. 303/2019 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren Estatutuak onetsi zituena. Horren arabera, aipatutako erakundeari dagozkion eginkizunen artean dago euskara bizitza sozialeko esparruetan agertu eta erabiltzeko informazio- eta sentsibilizazio-programak gauzatzea eta helburu hori bera duten entitate publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea.

3. El Decreto Foral 303/2019, de 6 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del organismo autónomo Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera, asigna al Organismo, entre otras, la función de realizar programas de información y de sensibilización sobre el euskera y su uso en los distintos ámbitos de la vida social, así como colaboración con entidades públicas y privadas con este mismo objeto.

4. Nafarroako Gobernuaren 2019-2023 legealdiko Programa Akordioa. Hauxe aurreikusten du: erakunde publikoekin eginiko lankidetza-hitzarmenei jarraikortasuna eman, edo, dagokion kasuetan, arlo publikoarekiko modu subsidiarioan, euskararen arloan erantzukizuna duten gizarte-entitateekin eginikoei.

4. El Acuerdo Programático para el Gobierno de Navarra de la legislatura 2019-2023 destaca la necesidad de dar continuidad a los convenios de colaboración con instituciones públicas y/o en su caso, de manera subsidiaria a lo público con aquellas entidades sociales con responsabilidad en el euskera.

5. 2022ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, izen hau duen partida aurreikusten da, 60.000 euroko funtsa duena: “Dindaia Fundazioarekiko hitzarmena, eskola adinean daudenei euskarazko jarduerak eskaintzeko”.

5. En los Presupuestos Generales de Navarra de 2022 se contempla la partida nominativa “Convenio con Dindaia Fundazioa, para ofrecer actividades en euskera a la población en edad escolar”, con una dotación de 60.000 euros.

## D) HITZARMENAREN IRAUPENA

Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta indarraldia 2022ko azaroaren 20an amaituko da.

Diruz lagungarriak diren gastuak 2022ko urtarrilaren 1etik azaroaren 15era bitarte sortutakoak eta ordaindutakoak izanen dira.

Hitzarmen honen kontra egin ahal izanen du aldeetako edozeinek, hitzarmenaren epemuga baino hiru hilabete lehenago.

## E) AURREKONTUA

2022rako aurrekontua 60.000 eurokoa (BEZ barne) izanen da, Nafarroako Gobernuaren 2022ko Aurrekontu Orokorren “Dindaia Fundazioarekiko hitzarmena, eskola adinean daudenei euskarazko jarduerak eskaintzeko” izeneko B30002 B3200 4819 334110 partidaren kargura.

## F) DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK

1. Proiektuaren koordinazioa: aholkularitza, gidaritza eta dinamizazioa. Proiektuaren zuzendaritza-taldeko langileen gastuak barne hartzen ditu.

2. Proiektuaren garapena: begirale dinamizatzaileen langile gastuak.

3. Funtzionamendu gastuak: proiektua aurrera ateratzeko beharrezkoak direnak: aholkularitza juridikoa, aseguruak, lan-arriskuen babeserako zerbitzua, mantenua.

4. Administrazioa: izen-emateak, taldeen antolaketa eta bezeroarentzako arreta.

## D) DURACIÓN DEL CONVENIO

El presente convenio entrará en vigor el día de su firma y finalizará su vigencia el 20 de noviembre de 2022.

Serán gastos subvencionables los generados y abonados entre el 1 de enero y el 15 de noviembre de 2022.

El presente convenio podrá ser impugnado por cualquiera de las partes tres meses antes de la fecha de su vencimiento.

## E) PRESUPUESTO

El presupuesto para el año 2022 será de 60.000 euros (IVA incluido), con cargo a la partida B30002 B3200 4819 334110 denominada “Convenio con Dindaia Fundazioa, para ofrecer actividades en euskera a la población en edad escolar”, de los Presupuestos Generales de Navarra de 2022.

## F) ACTIVIDADES QUE SERÁN OBJETO DE SUBVENCIÓN

1. Coordinación del proyecto: asesoramiento, liderazgo y dinamización. Comprende gastos de personal del equipo director del proyecto.

2. Desarrollo del proyecto: gastos de personal de monitores dinamizadores.

3. Gastos de funcionamiento: necesarios para llevar a cabo el proyecto: asesoría jurídica, seguros, servicio de protección de riesgos laborales, mantenimiento.

4. Administración: inscripciones, organización de grupos y atención al cliente.

5. Prestakuntza: begiraleak trebatzeko prestakuntzaren kostua.

6. Zeharkako gastuak: bulegoko gastuak: argia, telefonoa, garbiketa, aholkularitza, ekintzetarako materiala, proiektuaren zabalpena.

## G) DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Dirulaguntza bi epetan ordainduko da: lehenbizikoa, maiatzaren 31ra arte egindako gastuei dagokiena, aldez aurretik gastuen ordainagiriak aurkeztuta, ekainaren 15a baino lehen; eta bigarrena, 2022ko azaroaren 15era arte egindako gastuei dagokiena, dirulaguntzaren indarraldian egindako eta ordaindutako gastuak justifikatu ondoren, azaroaren 20a baino lehen aurkeztu beharrekoak.

Bi ordainketetako bakoitzean ordaindu beharreko zenbatekoa aldi bakoitzean benetan egindako gastuen justifikazioaren araberakoa izanen da, eta bi ordainketen baturak ezin izanen du gainditu emandako urteko dirulaguntzaren zenbateko osoa.

## H) DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Dirulaguntza hemen zehazten diren epeetan eta dokumentuen bidez justifikatuko da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritakoaren arabera:

a) Justifikaziorako dokumentazioa 2022ko ekainaren 15a baino lehen aurkeztuko da, lehenengo ordainketa egiteko, eta 2022ko azaroaren 20a baino lehen, likidazioa egiteko. Dokumentazioa Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuan aurkeztuko da, ohiko diren bide administratiboak erabiliz.

5. Formación: coste de la formación de monitores.

6. Gastos indirectos: Gastos de oficina: luz, teléfono, limpieza, asesoría material para las actividades, difusión del proyecto.

## G) ABONO DE LA SUBVENCIÓN

El abono de la subvención se realizará en dos plazos: el primero, correspondiente a los gastos realizados hasta el 31 de mayo, previa justificación de los mismos, a presentar antes del día 15 de junio; y el segundo, para los gastos realizados hasta el 15 de noviembre de 2022, tras la justificación de los gastos realizados y abonados durante la vigencia de la subvención, a presentar antes del día 20 de noviembre.

El importe a abonar en cada uno de los dos pagos dependerá de la justificación efectiva de gastos realizada en cada periodo, sin que la suma de ambos pagos pueda superar el importe total de la subvención anual concedida.

## H) JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

La subvención concedida se justificará, de acuerdo a la Ley Foral de Subvenciones 11/2005, de 9 de noviembre, en los plazos y documentos que se detallan a continuación:

a) La documentación justificativa de la subvención se presentará en Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskara por los medios administrativos oportunos, antes del 15 de junio de 2022, para realizar el primer abono, y antes del 20 de noviembre de 2022, para la liquidación.

b) Langile gastuak justifikatzeko, Dindaia Fundazioko kideek egitasmoan emandako orduak zerrendatuko dira eta, horrekin batera, nominak, Gizarte Segurantzaren kotizazio agiriak eta PFEZaren atxikipenak aurkeztuko dira.

b) La justificación de los gastos de personal se realizará mediante la presentación de una relación de horas reales dedicadas al proyecto por el personal de Dindaia Fundazioa, acompañada de las correspondientes nóminas, cotizaciones sociales y retenciones de IRPF.

c) Langile gastuak ez diren bestelako gastu zuzenak justifikatzeko, gastu horiek zerrendatuko dira bakoitzari dagozkion xehetasun hauek adierazirik: zenbatekoa eta ordainketa data. Agiri horrekin batera, fakturak eta gastuak frogatzeko baliokideak diren bestelako dokumentuak aurkeztuko dira, bai eta ordainagiria ere.

c) La justificación de los gastos directos, distintos de los de personal, se realizará mediante la presentación de una relación numerada de los mismos donde se detallará para cada uno de ellos su importe y fecha de pago. A esta relación se adjuntará las facturas u otro tipo de documentos con valor probatorio equivalente, así como el documento acreditativo de su pago.

d) Zeharkako gastuak justifikatzeko (horien barnean daude bulegoko materiala, argia, alokairua, aseguruak, ekintzetarako materialak eta antzekoak), gastuen azalpenak eta zenbatekoak zerrendatu eta aurkeztuko dira, horiei dagokien ordainagiria atxikirik.

d) Los gastos indirectos, entre los que se incluyen útiles de oficina, luz, alquiler, seguros, material para las actividades y otros análogos, se acreditarán mediante la presentación de una relación de conceptos e importes, acompañada de los correspondientes justificantes de pago.

Fotokopiak, fakturak eta gainerako agiriak era egokian zenbakituko dira eta gastuen zerrendan ageri diren hurrenkera berean aurkeztuko dira, BEZa edo bestelako zergak barne hartuta. Jardueraren bat zergen ordainketatik salbuetsirik badago, hala adieraziko da.

Las fotocopias facturas y demás documentación se numerarán correlativamente y se presentarán en el mismo orden en que figuren en la relación de gastos, con inclusión del IVA u otros impuestos. En aquellos casos en que la actividad estuviera exenta de impuestos, así se hará constar.

Bestalde, diruz lagundutako proiektua bukatu ondoren, dirua jasotze aldera, Dindaia Fundazioak egitasmoaren oroitidazkia aurkeztuko du Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuan, 2022ko azaroaren 20a baino lehen, ezarritako helburuak bete ote diren aztertzeko.

Asimismo, una vez finalizado el proyecto subvencionado, con el fin de proceder al cobro de la misma, Dindaia Fundazioa presentará una memoria del proyecto a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, antes del 20 de noviembre de 2022, para valorar el cumplimiento de los objetivos marcados.

Horretaz gain, gastuen amaierako justifikazioa ez bada onartutako aurrekontu guztiaren zenbatekoa adina, baina, hala ere, onuradunak frogatzen badu dirulaguntzaren xedea benetan bete duela eta superabitik ez dela izan, ulertuko da onuradunak bete duela dirulaguntza justifikatzeko betebeharra. Edozein moduz, Euskarabideak erabakiko du gastuen justifikazioa bateragarria denentz deialdiaren xedea gauzatzearekin.

Era berean, deialdiaren helburua osorik betetzen ez bada, jasoko den zenbatekoa gutxitu eginen da, gauzatu eta justifikatze mailarekiko modu proportzionalean gutxitu ere.

**I) GARDENTASUNA**

1. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3. c) artikuluan aipatutako entitate pribatuak behartuak daude gardentasun betebeharra betetzera baldin eta, urtebetean, 20.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, edo jasotako laguntzak edo dirulaguntzak beren urteko diru-sarrera guztien %20 edo gehiago badira eta, gutxienez, 5.000 euro.

2. Aurreko atalean ezarritako mugak gainditzen ote diren jakiteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde publikoek urte naturalean emandako dirulaguntza guztien kopuruak batuko dira. Urte batean baino gehiagotan ordaintzen diren dirulaguntzen kasuan, aurrekontuko ekitaldi bakoitzean emandako kopurua hartuko da kontuan ondorio horietarako, ez guztizko batura. Negozio zifra honako hauetako txikiena izanen da:

En el caso de que la justificación final del gasto no alcance el importe total del presupuesto aceptado, siempre que se acredite por el beneficiario el cumplimiento efectivo del objeto de la subvención y la no existencia de superávit, se considerará que el beneficiario cumple con la obligación de justificación de la subvención. No obstante, Euskarabidea valorará si dicha justificación es compatible con la ejecución efectiva del objeto.

Por otra parte, si la ejecución del proyecto subvencionado no fuera total, el importe a percibir se minorará proporcionalmente a la parte realizada y justificada.

**I) TRANSPARENCIA**

Las entidades privadas a que hace referencia el artículo 3 c) de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, están sujetas a las obligaciones de transparencia cuando perciban, durante el periodo de un año, ayudas o subvenciones con cargo a los presupuestos generales de Navarra en una cuantía superior a 20.000 euros, o cuando las ayudas o subvenciones percibidas representen al menos el 20 % del total de sus ingresos anuales, siempre que alcancen como mínimo la cantidad de 5.000 euros.

2. A los efectos de considerar si se superan los límites cuantitativos establecidos en el apartado anterior, se sumarán las cuantías de todas las subvenciones concedidas por la Administración de la Comunidad Foral de Navarra o sus organismos públicos en el año natural. En el caso de subvenciones cuyo pago se haga en diferentes anualidades, se computará a estos efectos la cantidad concedida en cada ejercicio presupuestario y no la

suma total. La cifra de negocio o presupuesto anual de referencia, será la que tenga menor importe entre las siguientes magnitudes:

a) Aurreko urteko negozio-zifra edo gauzatutako aurrekontua.

a) La cifra de negocio o presupuesto ejecutado del año anterior.

b) Hala bada, dirulaguntza ematen den ekitaldian entitatearen organo eskudunak onartutako negozio zifra edo aurrekontua.

b) En su caso, la cifra de negocio o presupuesto aprobado por el órgano competente de la entidad en el ejercicio de concesión de la subvención.

3. Bi egoera horietan dauden entitate edo pertsona onuradunek, dirulaguntza eman izana jakinarazi edo, kasua bada, ebazpena argitaratzen den egunetik hasita hilabeteko epean, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute telematika bidez Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoan, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari zuzenduta:

3. Las entidades beneficiarias en las que concurran estas dos circunstancias, deberán presentar de forma telemática a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra y dirigida a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, en el plazo de un mes contado desde la notificación o, en su caso, fecha de publicación de la resolución de concesión de la subvención, la información que se relaciona a continuación:

a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaera.

a) Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad.

b) Organo horiek osatzen dituzten kargudunen zerrenda.

b) Relación de los cargos que integran dichos órganos.

c) Entitateak aurreko urtean kargudun bakoitzari ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptuz kontzeptu. Sortu berriak diren entitateen kasuan, informazioa izanen da haien aurrekontuetan edo plan ekonomiko-finantzarioan jasotakoa.

c) Las retribuciones brutas y demás compensaciones económicas, percibidas de la entidad en el año anterior por cada uno de los cargos, desglosadas por conceptos. En el caso de entidades de nueva creación la información será de las que figuren en sus presupuestos o plan económico-financiero.

d) Gobernu, administrazio eta zuzendaritza eginkizunetan ematen den dedikazioaren araubidea.

d) El régimen de dedicación a las funciones de gobierno, administración y dirección, de cada uno de sus cargos.

e) Entitate onuradunaren urteko azken kontuen kopia bat.

e) Una copia de las últimas cuentas anuales de la entidad beneficiaria.

Entitateak gardentasun betebeharra bete behar ez badu aurreko atalean zehaztutako inguruabarrak gertatzen ez direlako, horren gaineko aitorpena aurkeztu beharko du.

En el caso de que la entidad no esté sujeta a la obligación de transparencia al no concurrir las circunstancias descritas en el apartado anterior, deberá presentarse una declaración en tal sentido.

Entitate onuradunak emandako informazioa Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren Gobernu Irekiko Atarian argitaratuko da eta eskura izanen da argitaratu eta urtebetean. Muga 15 hilabetekoa izanen da, informazioa kudeatzeko organoan sartzen den unetik hasita. Epe hori iraganda, argitaratzeko ardura duen unitateak ofizioz kenduko du eta, ez badu hala egiten, entitate onuradunak eska dezake ken dadila eta, gehienez ere, eskaera jasotzen den unetik hasita hilabeteko epean kendu beharko da.

La información facilitada por las entidades beneficiarias será publicada en el Portal de Gobierno Abierto de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y será accesible durante 1 año desde su publicación, con el límite de 15 meses desde su entrada en el órgano gestor de la información. Transcurrido dicho plazo, la unidad responsable de su publicación la retirará de oficio, y si no lo hiciera, la entidad beneficiaria podrá solicitar su retirada, que deberá producirse en el plazo máximo de un mes desde la solicitud.

Entitateak ekitaldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasotzen badu, ez du informazioa errepikatu beharko dirulaguntza bakoitzerako, salbu eta hasieran eman zituen datuak aldatzen badira. Horretarako, entitateak identifikatu beharko du Foru Komunitateko Administrazioaren zein organoren aurrean aurkeztu zuen, eta noiz.

En el caso de que la entidad sea beneficiaria de sucesivas subvenciones en el mismo ejercicio, no será preciso reiterar la información con ocasión de cada subvención, salvo que hayan cambiado los datos que se facilitaron inicialmente.

Betebehar hori bete ezean, emandako dirulaguntza ez da ordainduko, ezta aurrerakinak ere, eta kobratutako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35.1 c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Sin perjuicio de las eventuales consecuencias sancionadoras que se pudieran derivar del incumplimiento de las obligaciones de información por el beneficiario, este incumplimiento impedirá el abono de la subvención concedida, incluidos los anticipos y conllevará, en su caso, el reintegro de las cantidades percibidas, de conformidad con lo dispuesto en el articulo 35.1 c) de la Ley Foral de Subvenciones.

## J) DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ZEHAPEN PROZEDURA

## J) REINTEGRO DE LAS SUBVENCIONES Y PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

Jarraipenari, itzulketari eta zehapen prozedurari dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritakoaren arabera jokatuko da, eta zehazki ondokoan ezarritakoaren arabera:

- II. titulua: Dirulaguntzak itzultzea, I. kapitulua: Itzulketa: 34., 35., 36. eta 37. artikuluak.

- III. titulua: Dirulaguntzen jarraipena eta kontrola, I. kapitulua: Organo kudeatzaileek egin beharreko jarraipena: 38. eta 39. artikuluak. II. kapitulua: Finantza-kontrola: 40. eta 41. artikuluak.

- IV. titulua: Arau-hausteak eta zehapenak, I. kapitulua: Arau-hausteak: 42. artikulua. II. kapitulua Zehapen araubidea: 43., 44., 45. eta 46. artikuluak.

**K) DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA**

Onuradunak behar bezalako publizitatea emanen dio hartutako dirulaguntzari, dirulaguntzaren onespenaren hasieratik eman ere. Ahozko zein idatzizko publizitate bakoitzean jasoko da Nafarroako Gobernuak Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren bitartez parte hartzen duela. Aipamen hau Nafarroako Gobernuko sinbolo ofiziala arautzen duen otsailaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuaren jarraibideekin bat eginen da eta jarduera zabaltzen den denbora guztian mantenduko da.

**L) DIRULAGUNTZAREN BATERAGARRITASUNA**

Dirulaguntza hau bateragarria da xede bererako edo beste batendako jaso daitezkeen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Horietako bat lortuz gero, jakin bezain laster

En cuanto al seguimiento, reintegro y procedimiento sancionador se estará a lo dispuesto en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones y más concretamente lo dicho:

- En su Título II, Reintegro de las subvenciones, el Capítulo I, del reintegro en los artículos 34, 35, 36 y 37.

- En el Título III, Seguimiento y control de las subvenciones, el Capítulo I, seguimiento por parte de los órganos gestores en los artículos 38 y 39. Capítulo II, Control financiero en los artículos 40 y 41.

- En el Título IV, Infracciones y sanciones, el Capítulo I, Infracciones en el artículo 42. Capítulo II, Régimen sancionador los artículos 43, 44, 45 y 46.

**K) PUBLICIDAD DE LA SUBVENCION.**

La entidad beneficiaria deberá dar la adecuada publicidad de la subvención concedida desde el inicio de la aprobación de la misma, haciendo constar en cada publicidad oral y escrita la participación del Gobierno de Navarra mediante Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera. Esta mención se hará de acuerdo con las indicaciones del Decreto Foral 8/2020, de 12 de febrero, que regula el símbolo oficial del Gobierno de Navarra y se mantendrá durante todo el tiempo de difusión de la actividad.

**L) COMPATIBILIDAD DE LA SUBVENCIÓN.**

Esta subvención es compatible con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad u otras, cuya obtención se deberá comunicar a Euskarabidea tan pronto como se

Euskarabideari horren berri eman beharko zaio, betiere, jasotako dirua zertan erabili den frogatu baino lehen.

Hori hala izanik ere, dirulaguntzen kopurua ez da sekula izanen, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

conozca y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO KONTSEILARIA/ CONSEJERA DE RELACIONES CIUDADANAS

OLLO HUALDE ANA ISABEL - DNI 18205106P

Firmado digitalmente por OLLO HUALDE ANA ISABEL - DNI 18205106P
Fecha: 2022.03.01 10:39:06 +01'00'

Ana Ollo Hualde

DINDAIA FUNDAZIOAREN KUDEATZAILEA / GERENTE DE DINDAIA FUNDAZIOA

29144188Z MARIA ESTHER LACASTA (R: G31831050)

Firmado digitalmente por 29144188Z MARIA ESTHER LACASTA (R: G31831050)
Fecha: 2022.03.01 11:01:53 +01'00'

Esther Lacasta Perez-Ilzarbe

## *EUSKARABIDEAREN ETA DINDAIA FUNDAZIOAREN ARTEKO HITZARMENA (2022)*

## *CONVENIO ENTRE EUSKARABIDEA Y DINDAIA FUNDAZIOA (2022)*

| **CONCEPTO** | **CANTIDAD** |
|---|---|
| **1.-GASTO PERSONAL** | |
| Coordinación: Gasto personal de la directora del proyecto. | 16.000 |
| Monitores: Gasto personal de monitores. | 32.000 |
| Preparación: Gasto personal de la preparación y asesoría de la programación. | 4.000 |
| Administración: Gasto personal de la administración de Dindaia, correspondiente al proyecto. | 4.300 |
| **2.-FORMACIÓN** | |
| Gasto de formación de monitores. | 700 |
| **3.- GASTOS INDIRECTOS** | |
| Gastos indirectos: luz, agua, teléfono, seguro, limpieza, asesoría, material para las actividades, difusión del proyecto | 3.000 |
| **Total** | **60.000** |

| **AZALPENA** | **DIRU KOPURUA** |
|---|---|
| **1. LANGILE GASTUAK** | |
| Koordinazioa: proiektuko zuzendariaren langile gastuak | 16.000 |
| Begiraleak: begiraleen langile gastuak | 32.000 |
| Prestaketa: programazioaren prestaketa eta aholkularitzaren langile gastuak | 4.000 |
| Administrazioa: Dindaiako administrariaren langile gastuak, proiektuari dagozkionak | 4.300 |
| 2. **PRESTAKUNTZA** | |
| Begiraleen prestakuntza gastua | 700 |
| **3.- ZEHARKAKO GASTUAK** | |
| Zeharkako gastuak: argindarra, ura, telefonoa, asegurua, garbiketa, aholkularitza, ekintzetarako materiala, proiektuaren zabalpena | 3.000 |
| **Guztira** | **60.000** |